



COVID - 19



COVID - 19



Urriak 1-4

**INFORMAZIO ▶
GEHIAGO ETA
GONBIDAPENAK**

**WWW.
PASAIAKO
DANTZA
FESTIBALA.
INFO**

ANTOLATZAILEAK

haatik



BABESLEAK



dantza
gunea



laz abian jarritako **Pasaiako Dantza Festibala kulturarekiko apustu sendoa da Pasaiarentzat,** etaikusle asko erakarri zituen euskal konpainia profesionalen eta herriko eragileen arteko egitarau erakargarri batekin.

Jaialdiaren antolakuntzatik gertutik jarraitzen ari gara bizitzen ari garen gertakari guztiak; eta, bai herritarren bizitzen normalizazioari begira, eta baita dantzak eta kaleko arteek oro har jasango duten krisi larriari erreparatuz, **ahalegin guztiak egin ditugu, jaialdia ospatu dadin, osasun neurriak ziurtatuz.** Zehazki, **urriaren 1etik 4ra bitarte** aurreikusi da.

Bitartean, gure elkartasunik beroena adierazten diegu Pasaiako herritarrei, pandemia honi aurre egiteko egiten ari diren ahaleginengatik; eta baita zalantzaz betetako etorkizuna topatzen ari diren dantza eta kultur arloko eragile eta profesional guztieri ere.

Elkarren beharra dugulako, kaleak artez betetzera itzuliko gara!

Kulturak batu egiten gaitu!





EGUTEGIA:

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, ekainaren 11tik 14ra egitekoa zen egitaraua atzeratu behar izan zen. Azkenik **urriaren 1etik 4ra bitartean egingo da**, hortaz, festibalaren bigarren edizioa. Antxon izango dira ekitaldi gehienak, baina badira Donibanen ere.

Jaialdia osasun arau eta gomendioak zehatz mehatz jarraitzeko aukera emango duen formatu batera egokitu bera izan da. Ikusle kopurua mugatu eta kontrolatzeko aukera emango duen espazioetan eskainiko dira emanaldiak: Pasai Antxoko Ibaiondo Pilotalekua eta Juanba berasategi aretoan.


Ez da lehen edizioaren egitarau oparoa ez eta partehartzearekin izango. Baina, herritarrek dantzaz modu seguruan gozatzeko aukera bermatuko dugu.

Urria 2020

astehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
28	29	30	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11

LOKALIZAZIO

MAPAK:



PASAI
ANTXO

IBAIONDO FRONTOI ESTALIA



PASAI
DONIBANE

JUANBA BERASATEGI KULTURGUNEA



PROGRAMA:

Osteguna

1

Ostirala

2

Larunbata

3

Igandea

4

19:00

Pool

AMAIA
ELIZARAN

15´

**Sardina
fres-
kue!!**

ORGANIK

32´

**Invisi-
ble
beauty**

AI DO
PROJECT

60´

Basoa

DANTZAZ

35´

**Out of
the
blue**

LARUTAN

11´

**Gela-
jauziak**

KUKAI

25´

Ibaiondo
frontoi
estalia

Juanba
Berasategi
Kultur-
gunea

Ibaiondo
frontoi
estalia

Ibaiondo
frontoi
estalia

ANTXO

DONIBANE

ANTXO

ANTXO

URRIAK 1

19:00 PASAI ANTZO

Ibaiondo frontoia



POOL

Amaia Elizaran

IKUSKIZUNA

Likido bat forma zehatzik ez duen materiaren egoera da. Erraz aldatzen da eta berau barnebiltzen duen edukiontzia arabera definitzen da.

Giza gorputza %70a ura da”
Zerk definitzen gaitu? Non aurkitzen da bakoitzaren singularitasuna eta bestee-gandik bereizten gaituen hori?

Gure inguruneak baldintzatzen gaituen gizabanakoak gara, baina aldi berean, badugu horri kontra egiteko eta bizirauteko beste moduak ikertzeko gaitasunik ere.

ZUZENDARIA ETA KOREOGRAFIA:

Amaia Elizaran

INTERPRETEAK:

Xabier Zeberio, Amaia Elizaran.

MUSIKA:

Xabier Zeberio

JANTZIAK:

Xabier Mujika

ARGAZKIAK:

Rach Rodriguez

URRIAK 1

19:00 PASAI ANTZO

Ibaiondo frontoia



SARDINA FRESKUE!

Organik

IKUSKIZUNA

Sardina Freskue! Ikuskizunean aurrera ja-rraitzen du konpainiak itsasoaren munduaz eta han emakumeek duten lekuaz duen in-teresak. Saregileen ondotik, orain Santurtziko sardina-saltzaileen txanda da.

Lanbide horren ondare gisa kantu bat geratu zaigu, penintsu-la osoan ez ezik, haratago ere ezaguna dena. Omenaldia eskaini nahi diegu emakume haiei, haien lan estimatua eta haien ospe handia ez dadin ahaztu, eta, horretarako, sardina-urrina izango da protagonista nagusietakoa saioan zehar.

Sardina Freskue! Dantza-antzezpena da, umoretsua, freskoa eta urrintsua, eta publi-koaren parte hartzea bilatuko da une jakin batzuetan.

ZUZENDARIA:

Natalia Monge

INTERPRETEAK:

Natalia De Miguel, Helena Golab, María Martín.

MUSIKA:

Marc Cano, Jon Ander Garamendi

JANTZIAK:

Sinpatron

KANPO BEGIRADA:

Bego Krego

ARGAZKIAK:

Rach Rodriguez

ZABALKUNDEA:

Ana Gabán

URRIAK 2

19:00 PASAI DONIBANE

Juanba Berasategi



INVISIBLE BEAUTY

Ai Do Project

DOKUMENTALA + DANTZA

Invisible Beauty, AI DŌ PROJECT konpainiako dantzariak eta konpainiako zuzendari artistikoa den Iker Arrue-k, urtean zehar Alzheimerra daukaten pertsonekin garatzen duten saio multzoa da.

Dantza eta musikaren bitartez, gaixotasunaren endekatze prozesua ahal den neurrian atzeratzeko helburua daukate Alzheimerra daukaten pertsonen zuzendutako saioek.

Aurkezpen irekian, Asier Garcia-k zuzendu duen ekimenaren inguruko dokumentala proiektatzeaz gain, urtean zehar ekimenaren barne garatutako metodologia ere aurkeztuko du konpainiak. Aukerapenean, Alzheimerra duten pertsonen gaitasunei bereziki moldatutako dantza-sorkuntza bat ere aurkeztuko dute konpainiako dantzariak.

ZUZENDARITZA:

AFAGI, (Asociación de Familiares, Amigos y Personas con Alzheimer u otras demencias de Gipuzkoa.), AI DŌ PROJECT

DANTZARIAK :

Mar Rodriguez, Myriam Perez

MUSIKARIA:

Igancio Araquistain

AURKEZLEA:

Iker Arrue

BABESLEAK:

Kutxa Fundazioa, Eusko Jaurlaritza

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK:

Niessen Auditorioa, Gipuzkoako Dantzagunea, Musikene Goi Mailako Musika Ikastegia

URRIAK 3

19:00 PASAI ANTZO

Ibaiondo frontoia



BASOA

Dantzaz

IKUSKIZUNA

Basoa: iluna, estaltzen duena. Gune majikoa, baita beldurgarria ere. Historia garaikideko erreferentziatzko gune bat estali nahi izan duena bezalako.

Errefuxiatu-gunea, kontzentrazio-esparrua... Gurs, milaka pertsona bildu eta pilatu zuen lekua, ehundaka pertsona hil ziren lekua, Guregandik oso hurbil dagoen leku bat, historian hain urrun ez dagoena.

Gursen abiapuntua izango dugu gaur milaka eta milaka pertsonak gerrak eta pobreziazatik pairatu behar duten egoerari buruzko hausnarketa egiteko eta mezu poetikoa zabaltzeko. Gurs iragana eta gaur eguna lotzen dituen zubia da.

KOREOGRAFIA :

Josu Mujika

MUSIKA:

Iñaki Salvador

TESTUAK:

Xabier Sukia

AHOTSAK:

Xabier Sukia, Arantxa Arza, Marie Luyten, Miriam Mohamed

ZUZENDARI ARTISTIKOA:

Adriana Pous

JANTZIAK :

Maialen Miranda, Naroa Minchero

PRODUKZIOA:

Dantzaz

DANTZARIAK (10 hauengatik):

Oier Abrego, Pauline Bonnat, Saioa Belarra, Alicia Cayrou, Elene Carreto, Marina Eskisabel, Aritz Lasa, Aitor Jimenez, Iker Sanz, Xian Martinez, Julen Rodriguez, Diego Urdangarin, Beñat Urrutia.

ARGAZKIAK / FOTOS:

Blanca Razquin.

BIDEOA:

Beñat Gereka (Txikota Komunikazioa).

KOMUNIKAZIOA:

Kultur Atelier.

URRIAK 4

19:00 PASAI ANTZO

Ibaiondo frontoia



OUT OF THE BLUE

LaRutan

IKUSKIZUNA

Kalean erakusteko pentsaturik dagoen, formatu laburreko dantza garaikideko pieza da, non bi dantzari eszenan aurkitzen diren.

Lan fresko eta dibertigarria da, libreki dantzatzearen, mugitzearen eta egunerokotasunetik ihes egiteko beharretik sorturikoa.

Hau dela eta, gure ideia pieza jendartean erakustea da, guk hainbat goza dezaten. Irribarrea atera, txalo egin eta piezak daraman erritmoaren kitzikapena sentiaraztea da gure asmoa.

ZUZENDARITZA:

Maria Andres

KOREOGRAFIA:

Maria Andres, Denis Martinez

DANTZARIAK:

Denis Martinez, Maria Andres

MUSIKA:

Plastikman

JANTZIAK:

Maria Andres

ARGAZKIA ETA BIDEOA:

Etanowski

TESTU ITZULPENA:

Ioritz Zabaleta

URRIAK 4

19:00 PASAI ANTZO

Ibaiondo frontoia



GELAJAUZIAK

Kukai

IKUSKIZUNA

Jon Maya eta Cesc Gelabert koreografoen arteko harremanetatik, gogoeta askoren ondoren, Gelajauziak sortu zen.

Obrak argi erakusten du bi koreografoek dantzarekiko eta kultura-tradizioarekiko duten interesa, egungo gizartera egokitzeko.

Pieza koreografiko horretan beren kezak eta esperientzia erakutsi nahi izan dituzte. Pieza-ren oinarriak bi euskal dantza dira: Gipuzkoako soinu-zaharrak eta Lapurdiko dantza-jauziak. Bi dantza horien balio soziala, gizarte-sustraiak, bat-batekotasuna... egiten ari diren lan horren parte aktiboak dira.

PROIEKTUAREN ZUZENDARIA:

Jon Maya Sein

KOREOGRAFIA:

Cesc Gelabert

MUSIKA SORKUNTZA:

Sabin Bikandi eta Xabier Erkizia

JANTZI DISEINUA :

Iraia Oartzabal

DANTZARIAK:

Alain Maya, Ibon Huarte, Jon Maya, Izar Aizupuru, Urko Mitxelena

ESZENOGRAFIA:

Néstor Basterretxea



COVID - 19

- Egitarau honetan dauden ikuskizun guztiak dohainik dira, baina ezinbestekoa da gonbidapena eskuratzea.




WWW.
PASAIKO
DANTZA
FESTIBALA.
INFO



COVID - 19

Covid-19ak eragindako egungo osasun-araudiaren ondorioz, emanaldi guztiek gehienezko edukiera izango dute. Gainera, beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, jarduera behar bezala garatu dadin bermatzeko.



COVID - 19



**Gonbidapena
aurretik eskuratu**



**Ateak 30 minutu
lehenago irekiko dira,
denborarekin iritsi.**




**Sintomak badi-
tuzu, ez sartu**




**Musukoa
derrigorrezkoa**



**Eskuen
garbiketa**



**Uneoro distantzia
mantendu**



**Adierazitako
eserlekua erabili**



**Antolakuntzako
pertsonei kasu
egin**

MILA ESKER!

WWW.
PASAIAKO
DANTZA
FESTIBALA.
INFO